

Gerra zibilaren inguruko oroimen kolektiboa: bertsolaritzari buruzko ikerketa 1936-1946tik

(Collective memory of the Civil War: Research about the bertsolarism 1936 – 1946)

PEREZ ALDASORO, Pio

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Balioen Filosofia et Gizarte Antropologia saila. Tolosa Hiribidea 70. 20018 Donostia
pio.perez@ehu.es

KARRERA JUARROS, Iñaki

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Hezkuntzaren Teoria eta Historia saila. Tolosa Hiribidea 70. 20018 Donostia
inaki.karrera@ehu.es

Bertsoak garrantziko tresna narratiboak dira, iritziak, sentimenduak edo gertakizunak kontatzeko baliabide egokiak dira, horregatik gure ustez 1936-1946 hamarkadaren bertsogintzaren ikerketak gerra zibileko oroimena lantzeko bide batzuk ireki di tzakeela eta bide batez, gerra bizi zutenei buruzko informazioa eskaini. Hemen aurkeztu dugun komunikazioa bide hori jorratu nahi du Zapiraindarrren familiakoen bertsoen ildotik.

Giltza-Hitzak: Oroimena. Gerra zibila. Bertsogintza.

Los bertsos son un importante instrumento narrativo para revelar opiniones, sentimientos o acontecimientos. Por ello, consideramos que el estudio del bertsolarismo en los años comprendidos entre 1936 y 1946 puede abrir nuevas vías para ahondar en el recuerdo de la guerra civil y proporcionar información sobre los que vivieron la contienda. La comunicación aquí presentada tiene por objeto tratar el tema a través de los versos de los miembros de la familia Zapirain .

Palabras Clave: Recuerdo. Guerra Civil. Bertsolarismo.

Les bertsos sont un important instrument narratif pour révéler des opinions, des sentiments ou des événements. C'est pourquoi nous considérons que l'étude du bertsolarisme dans les années comprises entre 1936 et 1946 peut ouvrir de nouvelles voies pour étudier en profondeur le souvenir de la Guerre Civile et fournir des informations sur ceux qui ont vécu ce conflit. Les communications présentées ici veulent refléter cette voie au fil de l'inspiration des bertsos de la famille Zapirain.

Mots Clés: Souvenir. Guerre civile. Bertsolarisme.

1. SARRERA

Hemen aurkeztu dugun komunikazio honen bidez erakutsi nahi dugu, Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresu honetan, gerra zibileko oroimenaren inguruan egiten ari garen ikerketa bat. Aipatu oroimen kolektiboaren inguruko ikerketa honetan 1936-1943 hamarkadari helduko diogu, gerra hasi eta lehenengo hamar urteak alegia, eta gure ikerketaren ardatza izango da hamarkada horretan eman zen bertso gintza.

Gure ustez, bertsoaritzaren azterketak bide oparoak eskaini diezaielake gizarte zientziei eta gure kasuan, garai horretako bertsoaritzaren ikerketek informazio eta bide berriak ireki ditzake oroimen eta gerra zibileko gaietan, informazio ugari eman dezake, era berean, jakiteko euskaldunen komunitateak nola bizi izan zuen gertaera latz hori, zein izan ziren euren bizipena, sufrimendu eta pentsaera.

Bertsoak, bat-batekoak nahiz jarriak edo paperezkoa, oso tresna narratibo egokia suerta daiteke sentimenduak, iritziak, berriak, gertaerak edo bizitzako esperientziak kontatzeko, horrela egin izan baitute historian zehar.

Gainontzean... bertsolariak, askotan gertatu danez, kronista eta periodistak izan dira. Orregatik bertso hauen bitartez gure aiton-amonak nola ikusi zuten ikusiko dugu... (ZAVALA 2000: 12)

Horregatik, garai bateko oroimena lantzeko oso informazio aberatsa eman diezagukete eta, era berean, zenbait azalpen eman gerra eta errepresioa bizi izan zituen belaunaldiaren kosmobizioa. Garai hartako gizon-emakume euskaldunen pentsamendua, neurri handia batean, ahozkotasanak zuen garrantziaz bideratua zegoen (ZULAIKA 2003).

Horrela izanik, hemen aurkezten dugun lan hau ez da orijinala, badira bertsoekin lan egin duten beste ikerlariak, badira gerra karlistak edota I eta II mundu gerrari buruzko ikerketak egin dituztenak, hiru kasu horietan ongi jasotzen dira garaiko bertsolariaren iritziak eta kontaketa bi gertaera belikoen inguruan. Lan hauen adibideen artean ditugu Zavala (1993), Urkizu (1997) edo Antxustegiren (2001) lanak. Azken urte hauetan, argira atera dira ere bertso bilduma batzuk, gerra zibileko gai ardatz dutenak. Horien artean ezin ditugu aipatu gabe utzi, Joseba Zubimendiren *Bertso minez* (2002) lan bilduma, Koldo Eizaguirre idazleak egina;; edo Elosegiren lana *Txiplau bertsolariaren inguruan idatzi duen liburua, Joxe Mari Lopetegí errepublikanoen bertsolaria* (2004) edo Joseba Tapiak argitaratu duen gerra bertsoekin diskoa "agur intxorta maitea" (2006).

Hala ere, oraindik nabaria da arlo honetan, bertsoaritzaren ikerketetan, dagoen hutsunea, gizarte zientziek arreta gehiagoz begiratu beharko diote bertsoaritzari (GARZIA 2004). Falta dira, gure ustez, gerra garaiko eta horren ondoren ezarri zuten errepresio urtetako bertsoaritzaren inguruko lan sistematikoak, apurra egin den hori txalogarria da (ALKAIN, ZAVALA 1981: 20).

2. ZAPIRAINDARRAK

Gure lanaren eredu txiki bat bezala, hona ekarri nahi izan dugu Zapiraindarrek gerra garaian egindako bertsoak. Bertso sorta hauen bidez azaldu nahi dugu nola Zapirain familiakoen artean bertsoaritzaren ez zen jaietako eta performance antzeko zerbait, familiakoen artea erabiltzen zuten komunikazio tresna bat, eta bertsoak erabilia, aitak

eta semeek askotan azaltzen zituzten sentimenduak, emozioak eta bertsoen bidez kontatzen zituzten gerran ikusitakoa, kartzelaldian pairatutakoa eta ondorengo erre-
presio urteetan gertatutakoa.

Bertso hauetako batzuetan oso agerian geratu ziren egilearen gizatasuna eta ongi laburbiltzen dituzte urte ilunetan pairatutako sufrimendua. Behar bada, bertso-
rik gogorrena Joxe Zapirainen “Leen amar lagun ginan etxean” bertsoak dira, non
egileak etxeko sukaldean eserita penaz beterik bertso batzuk sortzen duen bitartean,
bere semeari kantatzen dizkio paper batean jartzen zitzaizkion. Joxe, aitak, bertsoan
adierazi nahi du hizkeraren bidez ezin duena, bere bi seme galdu izanak burura ekar-
tzen dizkion oinazeak eta egonezinak, bertsoen bidez apaldu nahi du lokartzen uzten
ez dioten minek.

Bertsolarien familia honetan, ezagunenak hauek dira: Joxe Zapirain Irastorza,
aitona, Juan Kruz (1867-1934) eta Joxe (1873-1957) anaiak, aurrekoaren semeak,
Xalbador Zapirain (1912-2000), Ataño ezizenez ezagutua, Joxeren semea eta Joxeren
iloba, egun bizirik dagoen Xanti. Hauen bertso batzuk ospe handia hartu zuten, adibi-
dez: *Brabante-ko Jenobeba, bertso berrietan* (1929) Juan Kruzenak; Alarguna, Len
amar lagun giñan etxian, Joxerenak edota *Txantxangorri kantari* (1979) Xalbadorre-
na. Familia honi buruz egin diren aipamen eta erreferentzia idatziak ugariak izan dira,
hala nola: J. M. Leizaolaren *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía
vasca, edo* (1965) *Zapirain Anaiak* (1975) Antonio Zavalak bertso bilduma, edo
Txantxangorri Kantari (1979) Xalbador Zapirainek, beren aitaren biografia idatzitakoa,
edo *bizi behar dugu* Xanti Zapirainena (2005) beren esperientziaz eta familiaz dihar-
duen liburua. Liburu hauek eskaintzen dizkigute zenbait bertso eta Zapiraindarrei
buruzko beste zenbait informazio biografikoa.

Bertsolari hauek ez ziran izan plaza-gizonak, badirudi euren ahotsa oso fina omen
zen eta jendearen aurrean kantatzeko ez zen egokia, baina Zapiraindarren artean
oso ohikoa zen bertsoak kantatzen ibiltzea, honela gogoratzen du Xalbadorrek euren
zaletasuna egin zioten elkarrizketa batean:

[...] Nere aitona bertsolaria zen, osaba eta aita ere. Ni ere, eta iloba gaztea halakoa
dugu baita. Gurean bertso giroa oso bizia izan da beti. Auzoen artean berdin, Txirrita
eta...

Etxean ez genuen besterik ikusten eta gaztaina erreak jaten hasten ginenean, eta
bertsotan (1981)

3. JOXE ZAPIRAINEN ETA SEMEEN BERTSOAK

1936ko Irailaren 13an, Zapirain anaietako zazpi, aitarekin batera, Bordaxar base-
rriko sukaldean bazkaltzen zuten bitartean, etxe atarian oihu, birao eta zalaparta
ugari entzun zituzten. Erreketeak ziren. Errekete talde batek San Marcos gotorlekua
hartua zuten Irundik Erreterira etorri zirenean. Baserritik bi kilometro eskasian dago
San Marcos eta nahiko normala zen erreketeak Bordaxar inguruan ibiltzea. Horrela
ibiltzen ziren zeramaten hilabetean, jendea izutu, zerbait lapurtu eta horrelakoetan.
Baina inoiz ez ziren etxera sartu, egun horretan, ordea bai sukalderraino sartu ziren
oihuka eta mehatxuka. Etxe gurtia miatu zuten, goitik behera, sukaldeko mahaia irau-

li egin zuten, ukulua ere hankaz gorra jarri zuten ere, eta azkenean etxean zeuden zortziak gotorlekura eraman zituzten preso.

Bizilagun batek salatu egin zituen, abertzaleak zirelakoan matxinoen aurka omen zeuden. Salaketaren arrazoia bi anai zaharrenak gudari joanak zirela, Euzko Jaurlearitzaren agintepaan, izan zen salaketa arrazoia.

Joxe Zapiraineekin hasi ziren galdeketak, behin baino gehiagotan saiatu ziren erreketek informazioa lortzen, baina Joxek ezin zuen gauza handirik erantzun, arazo handiak zituen gaztelera ulertzeko eta are gehiago gaztelera mintzatzeko. Ikusita Joxerekin alferrikako lana zela biharamunean libre utzi zuten. Joxe, triste, nekatur, oinez Joan zen etxeraino, han bakarrik txakurra zuen zain, eta etxetik bueltan zenbait oilo, hauek erreketen lapurreta salbu geratu ziren apurrak. Gau horretan ezin zuen lorik hartu, ohean ibili zen eguzkia noiz aterako zain. Goizean txukundu eta bizarra kendu ondoren Erreteriarra jaitsi zen, zerbait egin behar zuen semeak aska zitzaten eta bere iloba apaizarekin hitz egitea otu zitzaion, Joxeren iloba ezaguna zen Erreteriar karlismoarekiko zuen zaletasunarengatik, eta matxinatuekin tratu errazak zituela Joxek bazekien.

Bere iloba ez zion kasurik egin, osaba Joxek egiten zizkion erreguei purrustaka erantzuten zuen, osabaren hitzei ez zion jaramonik egin, eta Joxe bere arrebaren etxetik alde egin zuen esperantzarik gabe. Gero, herriko beste apaizarengana joan zen, zaharra zen baina betidanik ezagutzen zuen eta pentsatu zuen beharbada apaiza horrek zerbait egin zezakeela beren semeak askatzeko. Apaiza honek esan zion, lasai egoteko erreketek oso ongi zaintzen baitzituzten presoak eta erantzunak ez zion asebate. Orduan, Udaletxera Joan zen, han laguntza eske aritu zen, militarrek eta paisanoekin hitz egin zuen eta inork ez zion kasurik egin. Joxe etxeraino bueltatu zen gero eta kezka gehiagorekin, beldur zegoen beren semeek jasan zezaketen etorkizunarengatik.

Arratsaldea hartan, baserriko kanpoaldean ahots batzuk entzun zituen, honetan txakurrak ez zuen zaunkarik egin, beren hiru seme gazteenak ziren. Joxe ateraino joan zen eta, begietatik negar malkoei eusten ezinik, besarkatu zituen hiruak. Ezin zuen ezer esan, hitz solte batzuk bere ahotik jariatzen zirela: nire semiak, nire semiak... Hiru seme hauek etxean zeuden libre, baina besteei buruz ez zituzten berri onak ekarri, preso jarraitu behar zuten besteak. Ondarretako espetxera eraman behar zituztela entzun zuten eta bertan egun gutxi barru prozesatu eta epaitu behar zituzten Consejo de Guerra delakoan.

Laurak, semeak eta aita, mahaiaren inguruan eseri ziren mokadua afaltzeko eta afalostean Joxek, ohi zuen bezala, bertsoan hasi zen, orduan tristuraz beterik, beren semeen hutsuneak eragiten zizkion larritasuna eta egonezina, momentu horretan barnean zituen harrak eta sentimenduak kanporatu nahi zituen berak hobekien zekien modura, bertso batzuk sortuz:

Sentimendu asko dauzkat nerekin
orain kontatu biarrak
Ez dakit nola zuzendukoñiran
Egin dituzten okerrak;
Pazientzitik ez naiz atera
Jaungoikoari eskerrak,

Leku askotan jarri dituzte
Tristura eta negarrak,
Len amar lagun giñan etxian
Ta orain iru bakarrak.

Biharamunean, ondoko baserri bateko bizilaguna, Ondarretako espetxean zain-tzaile lana egiten baitzuen, Bordaxar baserrira hurbildu zen Joxeri esanez lau zapirain-darrak eramanak zirela Ondarretara, eta behar bada Consejo de Guerra egin behar zietela, berak ez zekizkien motiboak zirela eta. Igandean, Joxe, Ondarretako espe-txera abiatu zen semeak ikustera, beraiekin bost minutu egotea eta hitz-egitea lortu zuen, agurtzerakoan esan zien lasai egoteko, berak ahal zuena egingo zuela eta laster irtengo zirela libre.

Astelehenean, bertan, Ondarretan presoak laguntzen ibiltzen zen jesuita bat Jo-xerengana joan zen, beren bi seme fusilatu egin zituztela esan zion eta seme baten gutuna eman zion. Berria entzun zuenean, zerua bere gainetik eroriko balitzaion be-zala sukaldeko mahian eseri zen, bere ondoan zegoen bere semeari papera eta bo-ligrafoa hartzea eskatu zion, jaso behar zuen kantatu behar zituen bertsoak, horrela omendu nahi zituen seme hil errugabeak. Berrito hitz arruntekin ezin zuen samina azaldu eta hitz errimadunekin hasi zen:

Atentziyua izan zazute
Nik esandako itzakín:
Nere biotzik ezta poztutzen
Dirua eta gauzakin,
Eztakigu noiz jarriko geran
Kotsuelo eta pozakin;
Bi seme illak, beste bi preso,
Beste bi non dan ez jakín,
milagro ezta ni egotia
kuidado eta kezakín.

Adierazi biar dizutet
Esango dizutet ziñez,
Tristura ontatik iñola ere
Apartatu al bagiñez;
Atentziyua izan zazute
Errezo asko egínez;
Bi seme illak, beste bi preso
Beste bi non dan jakín ez,
Nire biotza tristuran dago
ezin sendaturik minez.

Milagru ezta pena aundiya
Izatia biotzian,
Negar malkuak saltatzen zaizkit
Inoiz gogoratzian;
Ezeren mantxik eta batere
Kulpa garbiak il zian,
Beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
Zer kontatu izango dute
Elkarrengana biltzian.

Orra zer lana ekarri diran
Nire semien paltiak,
Ta ortatitan izandu ditut
familiarako kaltiak;
ai, penosuak izandu dira
pasa ditudan urtiak,
kastigu oiek izandu dira
gogorrek eta fuertiak,
emen izango al ditut arren
beste munduko partiak!

(Zavala, 1975: 272)

Handiago izan zen emozioa oraindik, apaiza jesuitak emandako gutuna ireki zue-
nean, berri txarrak patrikan ahaztarazi egin zion gutuna hor zuela. Kartazalean ze-
goen papera atera eta semeari eman zion ozenki irakur ziezaion. Paperean bertsoak
agertzen ziren, Antoniok, semerik zaharrenak, aitaren ohituraz baliatu zen heriotzaren
aurrean, honela agurtu zen bere familiarekin:

Errurik gabe iltzera guaz,
Aita ta anaia maiteak,
Gazte gerala utzi bearra
Dana naigabez beteak;
Gure odolak Garbi dirala
Egin ditugun kalteak,
Agur, ez digui kalte egingo
Garbi gerala joateak.

Agur betiko, osaba, izeba
eta lengusu kutunak,
agur biotzez adiskide ta
maite nitun ezagunak!
Uste gabean bukatu dira
Nere munduko egunak,
emengo partez orain
zeruan egingo ditut lagunak.

Agur, Juan Joxe ta Saturnino,
Joakin eta Xalbador,
Juan Kruz, Manuel ta Joxe Mari,
geratzen zaretenak or;
ate ondoan dira etsaiak,
gure ordua badator;
gutzaz biotzez maitakor.

Ez gorrotorik izan inori,
Izan alkarrekin lagun;
Izan zazute beti euskotar
Eta benetan euskaldun;
Eliza maite, kristau bezala
Bide zuzenetik jardun,
Orain berexten geranok berriz
Alkar ikusi dezagun.

(Zapirain, 1979: 234-235)

Antonio semeak hil baino ordu batzuk lehenago paperean jarritako bertsoek izan
zuten aitaren erantzuna. Ondorengo bertso hauetan Joxek beren semeen ahotan ipin-
tzen ditu euren sentimenduak eta irudikatzen ditu hilketaren aurrean bi semeak izan
zitzaketen beldur eta nahiak:

Ez dakitenak badira eta
nua esaten astera:
onak gaudela ill biar degu
gaiztotu gabe ostera,
gu konfiantza onian guaz
mundu ontatik bestera,
egin ditegun obra ederrak
Jesusi erakustera.

Derrepentian bukatu dira
gure munduko egunak,
orain baguaz eta adios
adiskide ta ezagunak,
Jaungoikuari eskiñitza
egin ditegun obra onak,
orain zeruan ditegu izango
emengo partez lagunak.

Orlakorikan pasako zanik
iñork etzuen uzteko,
orain garaya allegatu da
mundu triti au uzteko
egin ditegun obra ederrak
Jesusi erakusteko,
ta suertia izandu degu
zerua irabazteko.

Neurri garbia izan biar du
Jesusen borondatiak;
mundu onetan ondo ordaindu
pekatuaren kaltiak,
umiltasunak zabaltzen ditu
zeruetako atiak;
adios aita eta anayak
ta beste parientiak.

(Leizaola 1974 : 25,26,27)

Matxinoek Joxeren bi seme fusilatua zituzten, beste biri zigorra arindu zieten, baina bizi arteko espetxealdia jasatera zigortu egin zituzten. Eguberriaren bezperaren goizaldean, bi seme preso San Kristobaleko espetxera eramán zituzten, Irunatik kilometro gutxira. Bere bizilagun karlistaren bitartez ibiltzeko baimena lortu zuen eta iloba batek lagunduta, Joxe San Kristobalera joan zen urte berria egunean, semeak ikustera. Xalbadorrek komentatu zion aitari goizeko seiak zirela oihu eta ate zaratak sumatu zituenean, gero tiro batzuk entzun eta gero isiltasuna izan zen nagusi. Bere anaiak Ondarretako harresietan fusilatu zituzten, gupidarik gabe. Hitz egiten zeudenean, zentinelak batek isilarazteko agindu zien, espetxean ezin zen euskaraz mintzatu. Joxek ezin zuen orduan ezer esan, gaztelera ez baitzekien, eta semeek begira pasa zuen denbora.

Bisitan zegoen semeetako bat, Salbador, bere aitaren tristura aurpegia ikusirik, gaztelera ezin zuela komunikatu ikusirik, papertxo batean bertso batzuk idatzi zituen eta aitarengana helarazi zizkion. Horrela, bertsoen bidez, aitak egiten eta ulertzen zuen bezala, kontatu zizkion beraien gabetasunak, egunak nola igarotzen ari zituzten eta nola bizi zuten anaienganako agurra:

Ez gurutze ta ez apaiz joan zan
beste askoren antzera
abertzalea ta bizkaitarra
kristau zintzoa zan bera
oraingo kristau berri auzentzat
gu erejeak bai gera
gure Jainkoak artu dezala
betiko atsedenera.

Ez dezu aita sinistuko zuk
baña egi borobilla
amaika aitón egón zitzayon
txutik eziñik otzilla
inbiri pixar bat biotzean
begira, triste ixilla
kajan zijóan aren lekuan
bera ez izana illa.

Bazkal ordua etorri zan ta
turuta otsa, arrantxo
eroskor baitzun mende, presuok
sartu giñan mantxo-mantxo
eguberriak, otordu on bat
nai, aspilla nion jaso
ur epelaren azpian zeuden
egoskor iru garbantzo.

Arratsaldean berriro ere
orma gañean pasian
otordu on bat egin da gero
aberatsaren klasian
bazkariaren antzekoa zan
aparia arratsian
lenteja gordin batzuk ikusi
nitun igari pertzian.

Aspertu nintzan ara onera
joan etorrian ibiltzen
lo egiteko asmoan, noizbait
asi ere mantan biltzen
agure xar bat aldamenean
oñazetan eta iltzen
-Que me muera, que me muera-oyu
ta oyu etzan ixiltzen.

Ori zan aurten nere eguberri
otza, gosea ta laño
Jesus aurtxoia etorriko zan
gizonen artera baño
bere maitasun pozik etzaigu
sartu gauden lekuraño
demoniñoen leizera aita
ez da batere estraño.

(Bertso, 1994: 53)

San Kristobal gotorleku erabiltzeko eraiki zuten eta matxinoek bertan sartzen zituzten preso eta kondenatua. Espetxe hau, Ezkaba mendiaren mazaletan eraikia, izan zen garai hartako espetxerik gogorrena, okerra, bertan presoek bizi zituzten bizi baldintza txarrenetan, ematen ziren presoek hilezkortasun tasak handienak ziren. Gaur arte gure historiako pasarte ezezagunena da gotorleku honen errealitatea.

Xalbadorrek aitari beste gutun bat idatzi zion, eta honela kontatu zion beren espe-txealdia, giltzapean pasatutako egunak, lehenengoz Donostiako Ondarretan eta gero Iruneko San Kristobal gotorlekuan. Eguberri tristeak izeneko bertso hauetan Ataño-k kontatzen ditu bi kartzeletan bizi izandako miseriak eta nahigabeak.

Gabonak, urte guzian ez da
ospatzen alako jairik.
Bazkari on bat agindu zigun
anayak gu poztu nairik
goiz, Ondarretan atean jota
etzun arkitu anairik
trenean pasa gendun eguna
gose paseak, baraurik.

Egun sentia baño lenago
leyo txulotik begira
lau lagun maite guardi aurrean
ixilik atera dira
gogor egiten zuten gaixoak
baña joka bultza, tira
noizbait eraman dituzte laurak
espetxeko atarira.

Oraindik illun atera giñan
nora ez jakin, goizean
gure lagunak triste utzirik
Donostiko espetxean
illuntzerako otzak dardaraz
San Kristobalko leizean
gabon tristeak ziran guretzat
ez goxogoak etxean.

Lau lagun dira joan zaizkigunak
iltzeko elur artera
ayen artean aita xaar bat
bi semerekin batera
nora zoazen ondo zekiten
ta entzuten nai atera
modu orretan zalla da jartzen
jaunaren borondatera.

Ez dakitenak jakin dezaten
astera noa kontari
emengo berri eman bai diyot
bakarrik dagon aitari
eguberritan bizi gerata
etsai maltzurak zaindari
San Kristobalko arzulu ontan
negarra bada ugari.

Gorrotoz, beren aurrean artu
ayek ziran erasoak
joka eraman dituzte andik
laurak iltzera gaixoak
denak larri ta izu, kanpora
erru gabeko usoak
ez gera esku txarretan eror
san Kristobalko presoak.

Bere semeak eusten zioten
aitari eror etzedin
bi seme ayen aita zan, beste
pekatu rik etzun egin
gauza zaneko lana ta lana
larogei urte berekin
gorrotoaren mende gabiltza
emen ez dago atsegin.

Ayek artara joaten ikusiz
nork ez du artuko pena?
Elur artean kulparik gabe
besteren eskuz azkena
aspaldi ontan ori jokoa
naparrak ari dutena
jayo berri zan maitasunari
egin zioten omena.

Egun sentian elurra txuri
inguruko arkaitzean
ormatutako arnas jario
lañu itxia leizean
jeiki berrian begiratuaz
kanpo aldera goizean
elur gañera eundoko jela
egin digu arratsean.

Tellatupera zintzilik daude
eundoko jela ziriak
an gabiltzanon buru gañera
ezpata gisa jarriak
gose ta otzak illunpe ontan
preso gaudenon larriak
sarrera onik ez digu egin
aurtengo eguberriak.

Egun sentian mezetarako
dilinka ezkillen otsa
izan ere gaur eguberriak
maitasunaren jayotza
baña emen zerk poztu lezake
preso gaxuon biotza
aingeru kantu orde z
goizean gorrotoaren abotsa.

Sinismen bero-beroa nuen
gaur asi naiz naiko nasten
kulparik gabe modu onetan
gure bizia garrazten
gauza berriak ari gera gu
San Kristobalen ikasten

Apaiz txiki bat falanjekoa
ikusiz nuen zegola
erdi jantzian bere alba ta
lepotik txintxil estola
silla txar baten gañean utziz
bere gerriko pixtola
bere atzean geundenon gatik
etzion asko ajola.

Itzaldi goxo bat egin zigun
apaiz falanje petrala
Españiako on eta txarrak
pisuan jarri zirala
txarrak behera ta onak gora
omen ziran bereala
odol geyago ixuri gabe
pake biderik etzala.

Andik atera orduko, jela
beltz artan pasian gero
patio dena lañuz itxia
ortxe amar bajo zero
txistua ere ormatzen zigun
asko ibilli ezker o
nolabait gure gorputz oztua
jarriko al gendun bero.

An gabiltzala turuta otsa
ortxe amaikak aldera
kaja zatar bat bizkar gañean
lau gizon pausoz batera
Illa zekarten denon aurretik
eraman zuten atera
lotuta zegon lekutik joan zan
bere askatasunera.

(Bertso, 1994: 55)

Oraindik barruko tristura kendu gabe, bere normaltasunean baserriko beharrak egiten ari zenean, 1938 urtean, jakin zuen Joxek San Kristobaleko gotorlekutik preso talde handi batek ihes egiten asmoetan zeudela, 800 bat izango ziren ihesean prestatu zirenak. Horietatik bakarrik hiru lortu egin zuten ihes egitea, beste 200 bat saiakeran bertan eta saiakeraren ondoren hil egin zituzten, fusilatua, eta beste hainbeste prozesatuak. Berria jakin zuenena Joxek gotorleku horretan zeuzkan bi seme ezin zituen ahaztu.

Agur seme

Zorioneko zeraden arte
ezta paltako lagunik,
eztira, erle mandoen gixa,
losintxar eta legunik.
Ekaitz gaiztoak asten badira,
eta zerua illunik,
orduan seme, zure ondora,
ezta etorko kutunik,
ezta beñere iraunkor izan
diruaren maitasunik.

Zure lagunak ikusi nairik,
joan nintzan etxe txurira,
Eztakit nundik, baña aberats
moduan bizi baitira.
Gogo txarretik bederen artu
ninduten beren erdira;
zure goraintzik eman orduko,
neri begira begira,
-eske al zatoz?- esan zidaten
lotsik gabe arpegira.

-Enator eske, erantzun nien,
eztet nai besteren gauzik,
neretzat eskas dedanetikan
bialtzen dietet pozik.
Enator onuntz beste ezertara,
nere semean goraintzik
beraren naia ala dalako
zuei eskeintzera baizik,
lagun maite bat orla uzteko
ez al dezute biotzik?

Ain errez aztu dezute beraz
amar urteko jarduna,
aukera zeukan garai aietan
orduan zuen kutuna.
Maite dun dana galduz erori
danean, ezta laguna,
zer kendurik eztezutenean
bakar utzita, urruna...
eskale batzun martxa da ori;
ori ezta maitasuna!

Minbera da gure Jainkoak
bial dizun erasua,
etzendun gelditzerikan uste
ain bakar, seme gaxua!
Etzaite mindu joan zaizulako
lengo lagun saill osua,
Jesus'i ori egin zioten,
orla da mundu lausua,
agor baizaie ura zerion
beren iturri gozua.

Bijoaz seme, bijoaz urrun,
guretzat obe joatia,
probatu dezu lagun txar batek
egin lezaken kaltia.
Negu ondoren baletozkigu
berriro, seme maitia,
zabal dauzkate gure biotz ta
etxe ontako atia,
Pozik emango geniekegu
barkazioan pakia.

Argituko du; jaso biotza.
gaitzak eztu luzatuko,
barka itzazu gaizki egiñak
ta etzaizu damutuko.
Lagun urkoei ondo egiña
Jainkoak eztu aztuko;
ematen degun baso ura-re
alperrik ezta galduko,
gure lagunak bezela iñoiz
ezkaitu arek salduko.

Bañan alare danak eztira
oraindik kutsutu txarrez,
ba-dira, seme, aztu gabeak
lengo beren lagun zarrez.
Bakardadera datozkit noiznai
errukiz, erdi negarrez,
-Ar zazu, Joxe, semientzako-
maitasunaren indarrez,
beretzat eskas dun pixarretik
zerbait eskeñi bearrez.

Eme-zulotik atera gabe,
beti lanaren mendeko,
bakardadean nunbait beldurrez
daude ate au jotzeko.
Ainbeste giñan! orain ain bakar
mundu ontan bizitzeko,
gure mai xarran orduan zazpi
aulki utsik ikusteko,
eta jakinki batzuk geiago
eztiradela beteko.

Maitasun gendun dana galduta
biotz gaxoak naigabe,
zu lotuta, ni erdi lotuan,
etxea bera giltzape.
Arzulo ortatik bear dezuna
eskatu kupirik gabe,
ai, aita xar au gauza dan arte,
goseak ilko bada-re,
seme maitea, egingo zaitut
bear dezunaren jabe.

Ezkiñan sortu betiko nunbait;
deituko gaitu azkenak,
emengo goraberetan, seme,
izan gaitezen zuzenak.
Jaunak bereak gaitun ezker
ba-dakizki gure penak;
banan banaka, bere aurrera,
biltzen geranean denak,
zorioneko orduan orain
negar egiten dutenak:

Agur biotzez, seme maitea;
galdu nun sendi osua,
bederatzitik zazpiren palta,
au bai dala erasua!
Kabi utsari begira dago
tristerik aita gaxua,
amaika aldiz egin bearra
eman nai eztan pausua,
miru beltzaren atzaparretan
eztabil ondo usua.

(Zapirain, 1966: 6)

Hori gertatu eta gutxira, Juan Kruz izeneko iloba bat atxilotu egin zuten Donostiako eliza batera gudarien aldeko meza entzutera joan zelako, ordena publikoaren kontra egiteagatik atxilotu eta kartzelara eramán zuten. Garai horretan Donostian, Antigua auzoan zegoen kartzela batera eramán zuten, Infernua bezala ezaguna, horregatik Joxek erabiltzen du infernu hitza bertsoen izenburua jartzeko.

Inpernuan

Dozenaerdi bat bertso
biar ditut jarri
denbora pasatzeko
entretengarri,
lenguan funziyo bat
zutelako jarri
eta zer gertatu zan
esango det sarri:
erakutsiko digute
inpernuko berri.

Entendimentutikan
nagola sanua
ango pasadizua
esatera nua;
beñere etzait aztuko
orduko lan ua;
Elizatik artuta
Preso inpernura;
arren, libra gaitzazu,
Aita Eternua.

Ango pasadizua
nua esatera...
eta sinistatzia
posible ote da?
Borondatez joan giñan
meza entzutera
barrenen ginen denak
kanpora atera
gero preso eraman
kartzela batera.

Zer esatera nuan
au goguan jaso.
Eta jende guztiya
beldurtu zan oso,
esan dan funziyo ori
izan dala kaso;
lagun asko giñaden
seme ta guraso;
elizan giñan danak
inpernura preso.

Kontatu bihar ditut
orduko kasuak,
aztu gabiak dauzkit
goguan jasuak.
Guziyak arrapatu
gaitu erasuak,
katolikuak eta
relijiosuak,
alare ez gaitu erre,
inpernuko suak.

Oyek egin dituzte
orrelako lanak,
presidiyuan sartu
elizara juanak,
nola emakumiak
igual gizonak
berexi gabetandik
gaixto eta onak
artu aurrian eta
inpernura denak.

Batzuek izututa
bestiak beldurtu,
eta jendia zuten
oso gogor artu.
Memoria ona daukat
naiz pixka bat zartu,
oyen aziyua iñork
ez lezake partu
bizirikan gaudela
inpernura sartu.

Nunbait guziyak igual
genduen merezi,
gaixtorik eta onik
ezuten berexi;
alako funziyorik
nik ez det ikusi;
batzuek eskapatu
ziyoten igesi;
jakiña inpernuan
etsaya nagusi.

(Zavala, 1975: 322)

4. BIBLIOGRAFIA

- ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio. *Gerrarteko ibilerak I*. Tolosa. Auspoa Liburutegia, 1981.
- ANTXUSTEGI, Esteban. "Bertsogintza eta historia: gerra karlisten adibidea." *Bitarte* 24 (79-89 orr.), 2001.
- BERTSO. *Bertso berriak gerra ostean jarriak*. Andoain. Bertsolari liburuak, 1994.
- ELOSEGI, Joxan. *Joxe Maria Lopetegi, errepublikanoen bertsolaria*. Elgoibar. Paper hotsak. 2004.
- GARZIA, Joxerra. "Amesten dudan ikergunea" in Diaz Pimienta, A, Egana Andoni. *Inprobisazio munduan*. Bertsolari liburuak. Andoain, 2004.
- LEIZAOLA, J.M. *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*. Ekin. Buenos Aires. 1965.
- OH! EUZKADI. "Atano, Xalbador Zapiraini elkarrizketa" in *Oh! Euzkadi*, 13. Zenbakia, 1981.
- TAPIA, Joseba. *Agur Intxorta Maite*. CD. Elgoibar. Gaztelupeko Hotsak, 2006.
- URKIZU, Patricio. "Bertsogileak eta II mundu gerratea". *Ohienart* 14 (199-202 orr.) 1981.
- ZAPIRAIN, Juan Kruz. *Genoveva de Brabante* (Manuel Lekuonaren edizioa) Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1929.
- ZAPIRAIN, Xalbador *Txantxangori kantari*. Tolosa. Auspoa Liburutegia. 1979.
- . "Agur seme" in *Zeruko Argia*, (190 orr.), 1966.
- . *Bizi behar dugu*. Tafalla. Txalaparta, 2005.
- ZAVALA, Antonio. *Zapirain anaiak. Juan Krutz (1867-1934). Joxe (1873-1957)*. Tolosa. Auspoa Liburutegia, 1979.
- . *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*. Tolosa. Auspoa liburutegia, 1993.
- . *Kubako gerra*. Tolosa. Auspoa Liburutegia, 2000.
- ZUBIMENDI, Joseba. *Bertso Minez*. Irun. Alberdania, 2002.
- ZULAIKA, Joseba. *Bertsolaritzaz bi saio*. Andoain. Bertsolari liburuak, 2003.